

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

190n. zenbakia/azilla
1994



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



EUSKERAZAINZA'ko BATZUK

Gatika'n, Goitxi jatetxean,
Solozabal'dar Paulin'en itzaldi-ostean

1994-5-28'an

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1994-95 IKASTURTEA

**OGEI TA ZAZPI GARRENA
BIZKAIERAZ
IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA**

Egunak: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

Orduak: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

Ordaña: 15.000 PEZETA

Izena emoteko-tokia: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22 - BILBAO

**27.² CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES Y CONVERSACION**

Dias: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES, O MARTES Y JUEVES

Horas: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

Curso completo: 15.000 P ES ETAS

Inscripciones: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22 - BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

27N. IKASTURTEA

ITXAROPENTSU

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'K asi dau 27m. ikasturtea, beti lez itxaropentsu ta gogotsu. Gauza pozgarria da izan be, euskerea ikasi nai dabenai, Bilbao'tarrai batez be, aukera au eskintzea, eta eskiñi be joan diran 27 urteetan 27 bider.

Alkarteak bere zidarrezko eztegu-eguna ospatu ebanean, Lendakari dauan Zubiri'tar Iñaki'k itzaldi gogoangarri bat egin eban, 25 urte orreitan gure alkarte onek aurrera atera dauzan ekintzak gogoratuz, eta ekintzen artean punterengoa, Bilbao'tar eta Bizkai'tarrai euskeraz berba egiten irakastea zan.

* **

ZENBAT IKASLE?

Urtetik urtera gogoratu euskun Lendakari jaunak zenbat ikasle izan diran gure ikasturteetan eta orrez gaiñera urte askotan emon zan udako ikastaroetan zenbat izan ziran.

Ordurik ona urte bi igaro dirala jakiñik, guk esan daikegu 27 urte orreitan 7.427 ikasle izan doguzala. Lenengo urteetan urte bakoitzeko milla eta gaur urte bakoitzeko 50 inguru.

* **

ZERGAIK GITXIAGO?

Berakada aundia agertzen da ikasleen zenbakian. Zergaitik? Lenengo zioa, ikasturtea asi zanean geu bakarrik giñala ikastaroa erutzen genduanak, baiña arrezkero eta batez be aspaldiko urteetan ikasturteak asko zabaldu diran ezkero, jakiña, bakoitzerako ikasle gitxiago izan bear, naizta ikasleak, bear ba'da geiago izan. Eta euskerea ikasteko zaletasuna ugaritu ala urritu egin ete da?

* **

IKASI GEIAGO

Ikasi gaur askoz geiago ikasten da, ikastoletan asi eta Ikastetxe nagusira eldu arte, eta elduentzat Udal-Batzak, Labayru'k eta beste askok erutzen dabezan ikasturteetan.

Alegin onen ondoren ona urte batzuk barru ikusiko al da.

* **

GEROKO EUSKERA

Or daukagu euskera batua esaten dautsoenaren arazoa be.

Or entzuten diran zatarkeri askok euskereari kalte egingo dautsoe, euskerearen barruko erakundeak eurak be aldatu egingo dira, eta urte batzuk barru egingo dan euskerea, eginen ba'da, ez da izango gaurkoaren antzekoa.

Latiñetik gaztelerara izan zan aldakuntzea baiño be aundiagoa izango dau gure izkuntzak. Tamalgarria da, baiña etorri leiteken gauzea.

GURE IKUTUA

Guk geure bidean jarraituko dogu aurrera, erriak darabilen euskerea, bear ba'da garbituta eta txukunduta, irakastean.

Eta orrek, zalantza barik, ikutua izango da etorkizunean bizi izango dan euskeran.

Gure ikasturteetan ekin dabenak, 7.427 ikasle izanak, la-guntza ona emongo dabe Bilbao-inguruan, euskerea ona ta jatorra izan daiten, euskereak aurretikoakandik artu doguzan edertasunak eta jakituria ondorengoai emon dagitsen.

* **

EMON IZENA

Orregaitik, orandiño baten batzuk nagikeriz edo konturatu barik etxeetan geratu ba'dira, gure ikasturtera izena emoten etorri ez ba'dira, emen doakie gure dei barria: Zatoze! Sendi baten antzera jokatu dogu eta ekin eta ekin eginda euskerea eskuratzea lortu.

* **

ARIÑAGO TA ASTIROAGO

Egia esan, batzuk ariñago ikasten dabe, edo lendik zeozer jakin dabelako, edo euskal-giroan bizi izan diralako edo izkuntzak ikasteko berezko erreztasuna daukelako.

Beste batzuk ostera aurrerabide onetan astiroago joaten dira, olako erreztasunik aurkitu ez dabelako edo eurai dago-kien ikasbidea aurkitu ez dabelako, baiña antxiñarik esana dan lez, ekiña egiña izaten da.

* **

IRAKASLEEN ALEGIÑA

Gure 27 urteetan izan doguzan 23 irakasleak benetako alegiña egin dabe euskerea irakasteko ikasbide onak aurkitzen. Ori be agertu gendun zidarrezko eztegu-ospakizunean, erabilli diran liburuak banan-banan aztertuz eta Xabier Peña'ri ta beste irakasle askori zor jaken omena emonez. Orretarako kasetak be ba-dagoz.

* **

ETORRI ETA IKASI

Beste urteeteko zenbakira urreratu gara aurtengo Ikasturteetan be, ikasleen kopuruari begira eta oraindiño be barriren batzuk etorriko dirala uste dogu.

Bilbao'tarrok! Bizkai'tarrok! Etorri eta ikasi Bizkai'ko euskerea!

EUSKERAZALEAK

MUGAN

Udaldia eldu jakun ezkeru, opor-alditxu bat artzeko norabait joan bear dala-ta ori dan bezela Biasteri'ra jo genduan. Erri au (erderaz Laguardia esaten jakona) Arabar Errioxa'ko erri garrantziena izanik, beste inguruko errien buru bezela agertzen da. Bertan bizkaitar eta giputz euskaldun talde on bat alkartzen gara, eguzki ta aize osasungarrien billa.

Erdi-Aroan sortua erri arresiduna dozue, ta bertan egiten dauzan arda atsegingarriak ospe aundia emoten dau-tsoena.

Bere arresi barruan ardaaz gaiñera, beste gauza jakin-garriak be gordeten dabez. Erti-lanari buruz, sarri askotan irakurri izan doguz bere eleiz bitan dagozan altxorrak.

Ekandu arloan baita be, antxiñako oiturak maitasun eta ardura aundiagaz irauarazten dabez. Esate baterako Andra Mari Jaietan, Erregeen Ama Birjiña'ri egiten dau-tsoen bederatzurrenean esaten dan Egun-sentiko Agurtza. Benetan biotz-ukigarria da agurtza asi baiño lenago, goizeko seiretan ondiño eguna agertu barik, kalez-kale dabillen gizon-emakume taldea ikustea, bertso polit eta maitegarriak abesten, auzokide guztiei Agurtzara joateko deituz.

Abertzaletasuna ondo sustraituta dagolakoa nago, besteak beste, bertan bixitasun aundiagaz ari dan Arabar Errioxa'ko Batzokia antolatu izan da-ta.

Biasteri'tik Lapuebla de Labarka'ra zazpiren bat Km. bide dago. Aurten ARABA EUSKARAZ eguna bertan ospatu dala-ta, muga-ondoko erri au oraintsu entzute aundikoa izan dogu.

Ibiltea osasungarria ei-da, ta inguruko errietara txango pozgarriak egiten genduzan Andolin eta biok. Udaldian egiñiko laguna, Igorre'ko arratiar bat eta beraz euskaldun jatorra, dozue Andolin.

Gure ibillaldietan masti zear giñoyazala, beti euskerea erabilli genduan, bizkaieraz jakiña, eta ezer esan barik ixilliko itzarmen edo ituna egin izan ba'gendun bezela, zein bata zein bestea, ez genduan iñoiz erderara joten.

Len aitatutako Lapuebla de Labarka erriari buruz, Arabar Errioxa'ko ikastolen eguna aurten bertan ospatzean entzun eta irakurri genduzan barri ta eztabaidak gure go-goan sartu-arazi ebazan ikus-min eta jakin-gurak eragin-da-edo, ara joatea erabagi geban. Goizian-goiz, eguzkiak gure bizkarrak berotu baiño lenago urten eta, taka-taka, astiro, orduterdian, gutxi gora-bera, Lapuebla Euzkadi egoaldeko mugan Ebro ibaia ertzean kokatuta dagon erri-ru eldu gintzazan.

Kalez-kale ibillalditxu bat egitean, arrigarri ta aldi berean pozgarria da ikustea, kale guztien izenak elebidunak dirala. Kaletako ormetan jarrita dagozan iragarkiak, lenengo euskeraz eta ondoren erderaz, agert-arazten dauskuez beren izenak. Ona emen oso adierazle diran batzuk: *Elizako Plaza-Plaza de la Iglesia, Harategi Kalea-Calle Carnicerfas, Kale Nagusia-Calle Mayor, Kale Barria-Ca-*

lle Nueva, Gaztelu-Plaza del Castillo, Telleria Kalea-Calle Tejerfas, Eguerdi-Kalea-Calle Mediodfa, eta abar.

Gero, izen aundiko dan ikastolea ikustera joan giñan. Ospetsu baizen bikaiña dogu bera; itxura oneko ta ondo zainduta. Bere etxe-aurrean, nabarri baten, onelako idazkuna ikusten da: "1987'eko Azaroan 14 ean Eusko Jaur-laritzako Lehendakaria Jos Antonio Ardanza Garro Txit jaunak Ikastola hau ingauguratu zuen" (Bealdean erderara biurtuta dago).

Udako oporraldia zan ezkeru dana itxita egoan, eta arduradunen batekin alkar-izketa bat egiteko ez genduan aukerarik izan.

Dana dala, ezaguna da ikastola onen joka-bide txalagarria ta izan dabezan gora-berak. Ez lenengo maillak bakarrik baita BUP eta COU maillako irakaskintza antolatu dabez. Urteak joan urteak etorri, ikasleak geitu, ta gauregun ikaslegoaren erdia baiño geiago Arabar Errioxa'ko ikastoletan dago. Ezkuntza Sailatik be Buesa Jaunak eta bere bideak jarritako amaika eragozpen goitu bear izan dira. Baita ikastolai zor eutsiezan 1.592 milloi pezeta, Ardanza Lendakariak gogorki agindu ta gero eskuratu ebezan.

Aurten egin doguzan txangoetan, Arabar Errioxa'ko seiren bat erri izan dira ikusi doguzanak eta bi dira kaleen izenak elebidunak dabezanak: aitatu dogun Lapuebla de Labarka eta Leza.

Leza, inguruko beste erritxu bat dozue. Bertako oso adierazle diran iru izen bakarrik aitatuko dautsudaz. Elizea goiko aldean dagon ezkeru, arako bideari *Eliz Aldapa* esaten jako batari, *Iturri kale* da bigarrena, ta zioa ez da esan bearrik, iturria an dagola ikusi ezkeru, irugarrena *Larrain Kalea* da, agian garia jo eso larrindu egiten dan tokia.

Gu ostatuz gagozan errian, Biasteri edo Laguardia'n aurten, oraintsu, kaleetako izenen iragarkiak jarri barriak doguz. Zarrak kendu ta beste bikain eta ikusgarriak lengo antzera, erderaz bakarrik, ipiñi dabez, ez elebidunak, beste erri bitan ikusi doguzan bezela.

Andolin eta biok gai au biotz-miñez alkar irazkindu genduan, baiña auzia argi dago. Naizta erri ontan EAJ alderdia (beste erako abertzale batzuk be egongo dira) ondo oiñarrituta izan, ondiño abertzale ez diran alderdien (PP, PSOE, UA...) kopurua aundiagoa da, eta aabertzaletasuna ez dagonean euskerakiko maitasuna be ez dago. Euskerea euskotar guztien izkuntza dan ezkeru, ez litzake onela izan bear baiña, tamalez, ori gertatzen da.

Lapuebla de Labarka abertzaletasuna ondo sustraituta dagon erri bat da, eta euskerearen berreskuratzeari buruz ikusi doguzan eredu-zko emaitzak lortu dauzana. Aurten *Araba Euskeraz* jaietan erabilli izan dan elburua, benetan ondo asmatuta eta adierazgarria dalakoan nago: "NON ETA MUGAN".

IDIGORAS'tar JOSEBA ANDER

GERTATUA

Dendaria mostradore atzetik eta Galtzaundiko etxeoandrea aurretik. Ona bien arteko alkarrizketa:

- Quiero prakas bexas de buztin-kolore.
- Zer neurrikoak?
- Grandes asi.

Biak ortan ari dirala, orra or denda-atean irukote xeble bat: atxo aundi lodi bat ezkerretik, emakume gazte xarmanta eskubitik eta, bien erdian, auntzen bizar mellarra okozpean zuen gizontxo txiki, begiluzanga, orixka bat.

Emakumeak gizontxo arrekin izkera errotz batean ari ziran; baiña, mostradorekoekin erderaz. Andrak euren artean ari ziralarik, ona gizon orixka arrek, abots sendo batekin, dendariari esanez:

- Galtza auek zer zenbaki dute?

Dendariari sustoa ez zaio oraindik pasatu:

- Auek 36 zenbakia dute.
- Ez al dezute beste margorik?
- Bai, badegu.
- Erakutsi, mesedez eta arren.

Ekarri zizkion galtzok eta probadorera bialdu zuan. Bitartean onela die deandariak beste bi emakumeeri erderaz:

- Gizon onek euskeraz egin dit.
- Bai, japonesa da.
- Zuek badakizute euzkeraz?
- Guz, ez. Berak, bai.
- `Babalu'ra etorri al zerate lanera?

(Babalu'zera degu Deban, gau-klub oietako xeble bat: eme beltzak, kafe-kolorekoak, zuriak, orixkak, ar-eme trabesti oietakoak, zer ez da bertan agertzen! Gizarte ustel onen lurpeko eremu illunetan bizi diran mamorro tipo guziak, Euskalerriko giza-alabeen pozgarri eta edukatzaile...)

- Zer Babalu, gero? Japonese au Lekeition bizi da euzkera ikasten. Antzekoak omen dira japonese eta euzkera eta errez ikasi du. Erderaz ez daki...

Japonese errian murgildurik euzkera ikasten, erriko umeak ikastoletan erretik alde dagoen euskera batua ikasten, zenbait baserritar, berriz, erdera-motroillan jo-ta-ke saiatzen...

Erremediorik, ez?

Beste aldetik, berriz, Euskera Batuaren arazo guzia dozenerdi bat gizonen omen daramate aurrera, beste guzietan, estakak lurtean sartzen diran bezela, mailluka sartzeko...

Erria beti artalde. Artzain bat eta bi txakur nai-koak edonora eramateko. Demokrazi epeltxo onen aizeetan ez ote gaituzte giza-maillara jasoko...?

ANES LAZKAU'KO
1975

EUSKAL ASTEA (EUSKERAZALEAK)

ZER'en irakurleai eta Bilbao'n naiz errietan diran euskera-zale guztiei barri au damotsegu: Aurten be Euskal-Astea eratu dogula. Izlari guztiak neska-mutil gazteak dira eta artu dabean gaiak egoki-egokiak gaurko onetan gauzak nondik nora doazen jakiteko.

NON: Eskolapio'tarren ikastetxean: Alameda de Rekalde 19'an.

NOZ: 1994'ko azillaren 14'tik 18'ra, arratsaldeko 8'retan.

IZLARIAK ETA GAIK

14, astelena: Asier Legarreta Legarreta bertsolari gaztea.

Gaia: Egaztien mundua.

15, asteartea: Idoia Otaegi Aizpurua, Eskubide-arloko irakaslea.

Gaia: Lrakaskintza euskeraz eskubide-arloan.

16, eguastena: Enrike Zabala Etxebarria, irakaslea.

Gaia: Esate ta ibilte-bide azkarraren mundua.

17, eguena: Asier Etxaburua Agirre, Zuzenbideko ikaslea.

Gaia: Euskera aurrerapideetan jartzeko zenbait aolku.

18, barikua: Iñaki Prieto Madariaga, injenierua.

Gaia: "Kresala" ele barriaren azterketa.

Oarra: Itzaldi guztien inguruan oinkada onek izango dira: Aurkezpena egingo dau Zubiri'tar Iñaki EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren Lendakariak, gero itzaldia, urrengo alkar-izketa eta azkenean Solozabal'dar Paulin'ek gaiari buruz bertsoa abestuko dau. Al dala, Deia'n urrengo egunean itzaldiaren laburpena agertuko da. Urte-barruan itzaldi osoa ZER'en argitaratuko dogu.

EUSKERAZALEAK

IBARRAKOARI ESKAINITA

ARBAILLO MENDIKO URGELDIKO IRELTXUAK

Burgoa mendiaren giblean Euskalerriko beste toki askotan lez, baserritarrek euren zereginei burubelarri ekin egiten eutseen. Oneen arteko bat IREBATZEA izenekoa zan. Irek ebagi eta ire-metetan batu ostean, burdiratu eta baserrira eroaten ebezan. Bertan, baserriko kortan, ain zuzen be, abereentzako azpigarriak (etzunlekuak) egiteko ireak erabilten ebezala. Oneri eginbear oneri -azpiak iraurtea- esaten eutsoen.

Beinola, Burgoa mendiko egalean dagoan Kontxabale izeneko baserriko Permin eta Mikel anaiak Arbaillo mendiko ingurura iretan joan ziran. Bertako irearreak, amaigeak irudiela, itsasorainokoak ziran. Bai, irearte aundiak areek, benetan!

An emon eben, ba, anai biok arrasti osoa. Irebatzeari ekin eta ekin.

– Txo, Mikel, etxera joateko ordua dok.

– Egon aite egon apur baten, ba, gizona ba! An dagozan iremetok batu eta etxera joango gozak, erantzun eutson besteak.

Bearrean ekin eben barrero. Bear ta bear egin eta... blausta! Konturatu barik, Ermu baserrialdera eldu ziran, burdia iraz beterik eukela. Ango etxeko jaunak, Txominek, etxaldeko soloetan bearrean egoala, ikusi ebazanean, urreratu eitezan keinua egin eutsen.

– Zer mutilok! Belu zabilze, belu! Erduze txakolin ona dastatzera, erduze, gedar egin eutsen Txominek.

Besteak idibuztarria arinago joan eiten akulatu eta aurberean Ermu baserrirantza jaisten asi ziran. Burdikada makala ira eroena!

– Edan egin mutillok. Bildur barik, gero! Gazteek gizon izateko edan egin bear dabe eta!

Edan? Oba ez, dranga-dranga edan be. A zan edatekoa!

– Txakolin gozoa, gero! Txakolin gozoa, gero!

Orduak etorri orduak joan, beluago, mozkorrango. Noz edo noz joateko sasoa zala ebatzi eben.

Esan eta egin. Etxerako bidea artu eben. Baina, etorri ziran lekutik joan bearrean, aldatz gogorra eta aundia zalako, Arbaillo mendira Matxixako alderditik eta andik Burgoa mendiko beeko aldetik etxera igotea ebatzi eben. Orretarako Matxixako lurradarretik gora joan bear izaten eben.

Burdibidean aldatz gora, ba, Arbaillo mendia igoten

joiazan anai biak, alborik albora. Ez zan makala aldean eroen mozkorra, ba! Ez, ez zan bape makala!

Burgo ganean
bada baldarra,
ez da paltako
popan zuldarra.

Gau zuria zan, zerua ozkarbi, izartsu agiri jaken eta iretargi beteak bere biribil-biribiltasunean argi motelez baztar guztiak beteten ebazan.

Artean, gure mutilak, aldarterik onenagaz eta burua bero-bero eginda eukela, abestu-zantzokari eragoioen. Idibuztarria, samar atzetik, asago etorran.

Albo-alboka, Arbaillo mendian naiko goiti dagoan urgeldira (zingirara) eldu ziran. Urgeldi au ez zan aundi-aundia, baina bai, ostera, baltz-baltza, bere ondoa ikusteko erarik inork ez eukana.

Erretako indarrak, mutilenak, ez idienak, jakina, birreskuratzeko, lotualditxu bat egiteari ondo eritxen. Besterik barik eta urgeldiko ertzean, bearen ganean etzunda egoan mukur baten ondoan jesarri ziran eta mozkorraren mozkorraz, loak artu ebazan. Lo zurrak artu, izan be! Idiak, bien bitartean, txiri-txiri eurengana urreratu ziran, ur edateko edo, asmoagaz.

Alako baten, gauerdiz beera, uretatiko plisti-plastazko zarata aundiak gure mutilak non iratzartuten ebazan.

– Ene, bada! Permin, gure idiok, gure burdia eta iremetok!

– Ai ene! Oraintxe bai, ederra!, -beste anaiak.

Idiak, burdia eta ireakaz batera, urgeldiaren barru-barrura, praka gorritz eta soineko orlegiz jantzitako, buztan eta adardun ziran iditxu aldrea (gaueko iratxoak), maratz bestean irribarretsu, sartzen aaleginduten zan. Mutilek, zurtz eginda egozala eta ezelako zirkinik egiteko gauza ez zirala, ezin izan eben euren begiek ikusten ebena sinistu. Idiak aurrerago, urak gorago.

Atan, iditxuen buruzagia izan eitekeanak abots zoliaz, baina entzuteko besteaz, bein ta barriz inotsen:

Salokeria, ardurarikeza,
lapiko bereko eiogatxa.
Idiak, burdia eta iretza,
non eta itsasaldeko atxan.

Au esanaz batera, idiak, burdia, ireak eta iditxuak urgeldian, berealan ondoratu ziran. Mutilak, ikusita-

koari sinistu ezinik, ondoezaldia etorri, beaeren gainera jausi eta lo zurruak barriro artu ebazan.

Urrengo goizean, etxeok mutilak urgeldiaren ondoan loak artuta aurkitu eta iratzartu egin ebezan. Mutilak etxera ez etozala ikusirik, goiznabarra baino leen euren bila urten eben eta. Zer jazo jakenaren itaunari mutilek ganorazko erantzunik emoteko gauza ez zirala zirudiane, etxeok, eurek euretara, idiak eta burdiaren bila asi ziran. Ez eben, baina, lorratzik be aurkitu. Jakina, ezetz!

Auzoko batzuk urgeldiko jazokerea sinistuten asi ziran artean, beste batzuk, ostera, oneei azken oneei barre egiten eutseen.

Andik iru egunera Urkidi eta Gixistiko mutilak, oizan lez, Arribola izeneko Matxixako ingurualdeko arriatzatura bidezidorrean beera lapatan jaisten ziranean:

—Ai ene Marie! Zer dok ori?

Antxe bertan, Arribola arritzatxu arrizabalaren gainean idiak, burdia eta ire lorra, danak, ezer jazo izan ez balitz lez egozan. Idiak ebagi barri zirudian bedarra mauka-mauka jaten eta ire lorra burdiaren gainean ondo be ondo atonduta.

Andik aurrera, mutilen ipuina egizat artu eben.

Arrezkero, urgeldi onen uretara jausi izan dan edozer edota edonor irugarren egunean Arribola deritxon arritzatxu orretan agertu izan ei da.

Ori olan izan bazan,
sartu daitela kalabazan.
Eta urten daiala
Txatxamietako plazan.

INIAKI MARTIARTU

IPUIN-SARIKETA

(BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin-sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuinak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuinak asmatuikoak edo errian batuak izango dira, ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira. Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2^a eskoia) egon bear dabe. Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da, Urterilllean, baita DEIA Egunkarian be albait lasterren.

—Sariak lau izango dira:

1 ^a	40.000 pezeta
2 ^a	30.000 pezeta
3 ^a	20.000 pezeta
4 ^a	10.000 pezeta

—Ipuinak izen-ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

EUSKERAZALEAK

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEAren izena ipiñi ta 1.500 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gainean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2^o, eskoia. 48001 BILBAO.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.**

Kultura Saila

PUXANA ADISKIDEAREN IRUZKINARI

Pozik irakurri dot, joan dan illean gure ZER onen orrietanagertu dan, Puxana'tar Pedro arabarraren iruzkiña. Solozabal'dar Paulin'ek EUSKERAZAINTZA'ra sartzeko egin eban itzaldiari egiten dautson azterketa da, oso egokia, sakona eta zer-pentsau emoten dauana.

Puxana'k diñozanak neuri be zer-pentsau emon dauste eta gaurko idazlantxu onetan neure pentsalditxu oneik agertuko dodaz, ez eztabaidarako, arazoari buruz zerbait agertzeko eta osokuntzarako baiño.

BASERRITARRAK ETE DIRA MAIXU?

Gauza jakiña da baserritarrak baiño obeto egiten daua-la berba euskeraz Orixe'k edo Onaindia Santi'k, baserritarrak ez litzakezala gai izango euren izkerea erabilliaz "Aitorkuntzak" edo "Egoitzak" deritxen itzulpenak egiteko, baiña nik itaun bat egingo neuke: Ez ete eban iñoz bere artean esan Orixe'k edo Onaindia'k zalantzak sortzen jakozenean, "au nire amak edo nire aitak zelan esango ete eban?". Eta bear ba'da bein baiño sarriago aurkituko eban maixu aundiak erantzun egokia baserritarraren izkeran.

Gaiñera nire ustez "baserritarra" esaten danean or sartzan dira erri aunditxuagoak be, esaterako Bermeo, emen geienak arrantzaleak dira baiña Bizkaian erri gitxi dira Bermeo'n beste baserri dituenak, edo Gernika'ren antzeko uriak.

Eta gaur baserrietan erabilten dan aditzak oker asko dauzala egia da, eta oker orreik ondo agertzen dauz Puxana'k. Baiña ezin esan izango dau bizkaierazko aditza ain egokiro aztertzen eta azaltzen dauan bere liburua idatzi ebanean iñoz ez dauala galdetu: adizki au zelan esaten dabe Oletan edo Gautegez'ko Artea'n edo Morga'n? Ba-dago or maixutza antzeko zeozer! Ezin esan, edozelan be, ez dagoala beste maixurik baserritarrak baiño. Maixu asko dagoz erri zeiazen euskerea aztertu eta euskerea edertzean lan aundia egin dabenak, eta euren artean, bat, zalantza barik, Puxana bera.

DOT / DOTEN, NOZU / NOZUN eta olakoak

Olako adizkiak Bermeo'n baiño ez zirala erabilten uste neban nik. Bermeo'n ugari-ugari erabilten dira, baiña ez nekian Oletan be erabilten zirala: "Zuk ni atzo Gazteiz'en ikusi NOZUN", dakar Puxana'k adibide lez.

Bermeo'n beste aditz-joko batzuk be sarritan entzuten dira, esasterako: "ikusi neinke" esan bearrean "ikusi lekidot". Orrelan aditza erreztu egiten da, baiña bai txirotu be. Eta errian sarri entzuten dan gauzea dira Puxa-

na'k dakarren esaldi onen antzekoak: "Alkate egin dos-te". Eta nik Puxana adiskideari itaun au egingo neuskio: Bizkai guztian egunen baten orrelan erabilten ba'da aditza, zer da aldatu bear dana, erriaren euskera oker ori ala euskerearen gramatika?

Aspaldion gramatikalariak argi diño gramatika ez dala arauak ezarteko, erabilten dan izkuntza zeaztuteko baiño. Ori diñoenak erderaz onelan esaten dabe: "La gramatika debe ser descriptiva, no normativa". Orra or barriro be erritarrak maixu!

Niri min aundia emongo leuskit gaurko gramatikearen aurka doazen esakera orreik ontzat artzea, baiña... Antzera esan bearke geunke beste esaldi onei buruz: "Mendira igon dot", "Anaiak lagundu daust" eta abar.

Ez ete nabil Puxana'ren lapikotxua barriro irakiten jarten?

Eta berton agertu dan ezkerro, "nabil" ori bizkai guztian erabilten dala uste dot. Gramatikeak eskatzen dauako Bizkai guztia ipiñi bearke ete dogu "diardut" esaten? Nor da maixua?

Ni gramatikaren alde nago, eta okerrerako aldakuntzak, erriak egiñak izan arren be, min emoten dauste, baiña erriak bere bideak artzen dauz eta azkenean erria aldatu ezin dalako, gramatika aldatu bear. Epe luzera beintzat!

EUSKALKIAK

Paulin'en lana irakurten dauanak, Bizkai'ko euskerea baiño beste euskerarik ez dagoalako eritxia aterako ei leuke, diño Puxana'k.

Orrelan izango da, berak orrelan uste dauan ezkerro, baiña, gaur, zoritxarrez, Bizkai'ko euskaldunak ez daukagu orrelako arrotasunik eukiterik, gure euskerea edo euskalkia ez da aintzat artzen, batu-antzeko orretan be ez dautsoe lekuri izten, albiste-bideetan eta ikastoletan ez dabe onartzen eta etxean bertan be gure euskaldun zarrak lotsa izaten dira berba egiteko euren umeak euskera barria dakiela eta obeto egiten dabela uste dabelako.

Egoera lan-ian gagoz, benetan, gure bizkaiera galtzera doa, eta galtzen ba'da ez dogu uste gure ostekoak batuz berba egingo dabenik, zori txarrez, erderaz egingo dabe, gaur be egiten dabe-ta.

Ez, ez da Bizkai'koa euskera bakarra, baiña bai euskera, bai bizirik atera bear dogun euskerea. Gramatika batua edo iztegi batuak edo itz-osotze batua egiten diarduenak ez dauke eskubiderik gure euskerea baztertzeko, eta ori egiten dabe.

Eta, adibide lez, latiñari buruz Puxana 'k diñoanagaz ez nator batera: "Latiña galdu ei zan erritarren aotan" diño eta esaldi ori ontzat artzen dauala dirudi.

Baiña latiña ez zan galdu, gaur 300 milloik darabilen erdereia latiña da, or bizi da latiña. Gaurko euskalkiak antziñako euskera batetik "proto-euskera"tik sortuak ba'dira, nik ez dot uste, orregaitik ez dogu esan bearko euskera il zala.

Gurasoak seme-alabengan edo ondorengoengan ez dira bizi, baiña izkuntzak baietz esango neuke nik.

Gaur gure gazteak eta ez ain gazteak darabilen euskereak aldakuntza aundiak sortuko dauz euskerearen barruan: Batzutan batuaren eragiñaz, beste batzutan eurak txarto darabilrelako... baiña ortik agertuko dan euskerea, gutzat ain zatarra izango dan euskerea (erromantzeak latin zatarra ziran antzera) euskerea izango da. Ez uste izan gero, orduan, euskera orretan Puxana'ren liburuak dakazen aditz-jokoak ain zuzen erabiliko diranik.

NORBERAREN EUSKALKIA ERABILLI?

Bizkaitarrok gipuzkoera be erabilli bear dogula diño Puxana'k. Ondo dago ori. Eta erabilli be erabilten dogu sarritan, ez ain sarritan gipuzkoarrak bizkaiera.

Orretan gu baiño nagiagoak dira. Ori da gauza bat baiña beste bat da, eta au esan gura dauala Paulin'ek uste dot, Bizkai'ko seme edo alaba diran eta bizkaieraz egunero berba egiten daben idazleak, beti guzpuzkoeraz edo batuz idaztea eta ez iñoz bizkaieraz.

Adibide lez, jazokizun bat: Deustu'ko Ikasatetxe Nagusian egin zan batzar bat Bizkai'ko euskereari buruz eta aurreko maian izan ziran izlaririk geienak bizkaieraz egin eben berba, baiña bizkaitar batek batuz egin eban eta nik au esan neutson: "Zu bizkaitarra zara eta batzar onetako arazoa edo gaia bizkaiera zelana aurrera atera dogu. Zergaitik egiten dozu berba gipuzkoeraz edo batuz?"

Ona emen bere erantzuna: "Nik erran dut, zuk ulertu duzu". Gura neuke jakin Puxana'ren eritxia olako bizkaitarrai buruz. Eta ez dira bat edo bi. Asko dira bizkaiera merke-merke saltzen dabenak, eta sarritan Euskaltzaindiari lurruna botatearren.

Zarate'k berak zezelako euskaltzain izatea lortu ba'eban, bide orretatik lortu eban, bere bizitzako amets aundi bat ori zan, izan be. Ez eutson ardua bizkaiera galdu arren, euskerea bizi izan ezkerro. Zer deritxazu, Puxana adiskide?

JOSKEREAA

Urrengo arloa, aditzarena, alde batera izten dot, anor-emen ainbat gauza esan diralako, idaz-lan onetan.

Baiña joskerearen arlora sartzerakoan, galdera edo itaun bat bai egin bear dausat adiskideari: Ez dozu aita-be egin gai oneri buruz Arejita'tar Adolfo bion adiski-

deak argitaratu eban liburu. Liburu ederra dala uste dot eta galdegaiaren arazoa ondo jorratzen dauala, baiña batez be bere gauzarik ederrena esaldiak zelana josi dala esango neuke. Ez jat atsegin esaldiak erderaz daben izena euskeratzeko artu dauan bidea, baiña mamiña bera oso ederra dala esango neuke. Zergaitik ez ete dau aitatu gure Puxana'k?

Paulin'en itzaldia arlo onetan labur dagoala egia da, baiña ez dau iñon esan euskerearen arlo guztiak jorratuko dauzanik edo zeintzuk jorratuko dauzan.

Dana dala, joskereari buruz ezin itzi esan barik, iparraldean jaramon gitxi egiten dautsoela, Gipuzkoa'n be ez larregirik, "Orduen Liturjia" bera be, joskeran sarritan aurkitzen dot oker eta ez beti bertsolarien oitura ta baimen bereziakaitik.

Arlo onetan batera nator Puxana'gaz, eta beragaz batera diñot orain be, sarritan esan dodana: "Peru Abaraka"ren joskerea benetan txarra dala.

Nik ez neuke esango gure gizaldiko obekuntza dala joskera arteza. Bizkaia'n gure aitita-amamak joskera arteza erabilten eta gaur be arlo onetan erriko bizkaiera, aditzean eta iztegi baiño zuzenago dago.

ATZIZKIAK

Arlo onetan Puxana'k diñoanagaz batera nator, baiña "bizia/bizitza" gai lez artuta, zerbait esan bear dot.

Ez da gauza bat itz biok adierazten dabena. Orretan batera gagoz. Baiña "potencia" edo "posibilidad de vida" or sartzea nik ez dot iñondik ikusten. Nik beste era batera agertuko neuke arazo au: "bizia" bizidunak bizidun egiten dauzana da nitzat, eta "bizitza" urteen joanean agertzen dogun bizia. Orrelan, Kristo gure bizia da, ez bizitza, eta Eukaristia biziaren ogia, ez bizitzaren ogia. Antzera esan bear neuke erioa/eriotzea'ri buruz, baiña guk "erioa" ez dogu erabilten, eta Bizkai'rik geienan ez dala erabilten uste dot.

AMAIA

Naikoa luzea dala uste dot idaz-lan au eta amaitu egingo dot, baiña ez Puxana'k diñoan gauza batera neure onartzea agertu barik: Euskera arloan oso gitxi dakigula eta egunerik egunera zomatzen dogula barruan zeozer barria ikastearren poza. Billatzaillen poza dala esan bear!

Eta Puxana'ren idaz-lanean be asko ikasi dot, naizta txikikeri batzutan batera etorri ez. Puxana'k asko daki, dakiana ondo agertzen dau, baiña geitxuago idatzi bear leukela uste dot. Euskerearen eta guztion onerako izango litzake. Nire eskerrik beroena Pedro Puxana arabarrari.

OLAZAR'tar Martin'ek

ARGI-UNE IZPITXUAK



GORPUTZA

Udara.

– Aragiaren piztuera eta betiko bizitza. Amen.

– I or eta ni emen.

– Olan amaitzen dok Kredoa. Eta aragi ori zergaitik erabiltzen dogu geure etsai ba'litza bezela?

– Alcantara'ko Pedro doneak sekulako trato txarrak emon eutsozan bere gorputzari...

– Berak jakingo eban zergaitik; baña Jainkoaren Itzak ere aragia artu eban beretzat; ez da ain txarra izango.

– Bai, Aragi arrek salbatu gaitu. Eta, zer?

– Tertuliano'k diñonez, aragia da geure salbamenaren ardatza eta gorputza bear dau geure animak bere agerpenak egiteko.

– Ala ba'da, ondo tratau bearko dogu.

– Nik ez daukot nere gorputza salgai; gorputza gara.

– Gorputza ematea, geure burua ematea da. Geu egiten gara eskeintza eta besteen alde eskeintza ori egitea, maitasunezko agerperik aundiena dala dio Jesus'ek.

– Asis'ko Prantziskok maite eban gorputza eta biziaren agerpen guztiak...

– Bai, baña, gaur egun geiegi maitatzen da gorputzaren azala.

– Azala bakarrik ez da, ordea. Neskatilla gazte baten azala bakarrik ez da gorputza; umetxoarena eta agure xarrarena ere gorputz maitagarriak dira...

– Bai, baña...

– Olio santuz geure bularrean eginda, sagaratu zuan apaizak geure gorputza Bataio egunean eta gorputz orreri, ilda gero ere, elizan inzentsua emoten jauko...

– Orduan esan bearko dogu, gorputza zaintzea gauza ona dala, bera da-ta Jainkoaren egoitza sakratua.

SEXU-KIDEKO

– Europa'ko Parlamentak auxa esaten dau: Legearen aurrean onartuak izan bear dabela gizonen arteko alkar-bizitzak eta maitatzea; berdin emaztekien artekoak be.

– Txo, txo ez eik arparik jo.

– Ezkonduta bezela bi gizon alkarrekin edo bi emazteki... gizona eta emakumea alkarrekin bizi diran moduan...

– Eta, ori Europa'ko Parlamentuak eskatzen dau? Nun bizi gara?

– Gizonek ezin dute aurrik izan, baña besterenak artu eta kito.

– Eta, emakumeak berdin?

– Onek beste irteera bat be badabe: euretako bateri beste emakume baten enbrioi bat ezarri.

– Orrek astakeriak dozak.

Astuek ez dabe orrelakorik egiten.

– Orduan, zer? Onartu?

– Gotzaiek berba egin dabe onela esanaz: Europa'ko Parlamentua ez dala iñor beste Laterriei orrelako gauzak eskatzeko.

– Eta, zer esaten dabe geiago?

– Gauza bat dala homosexual oietako gizakiei begirunea eta errespetoa izatea, eta beste bat dala euren artuemanak legearen aurrean onartzea, beste ezkontzen antzera.

– Ori bistan dago, ikusi nai ba'da.

– Izan ere berezko familia gizonak eta emazteak osatzen dabe. Beste sexokeri onek naaste-borraste bat, besterik ez dira.

– Gauzatxo bat falta da emen, seme-alabak, eta orrek osatzen dabe senarrak eta emazteak egiñiko familia.

EUSKO-ISLANDETAR IZTEGIA

– Gipuzkoa'ko Foru Aldundiak egiñiko "Mitxelena" Liburutegian, Fondo Gordeak deritzan atalean, 9174 zenbakiakin euskaldun eta islandiarren artean egiñiko iztegi bat dago izen-buru onekin: "Glossaria duo vasco-islandica: speciem litterarium inaugurale".

– Euskaldunak Islandia'n bakallautan ibilli zirela, aspal-diko kontua da.

– Orrelako iztegi bat egiteko señaile da urte askotan artu-amanetan ibilli ondoren egingo ebela.

– Nik uste dot Terranova'ra baño lenago joan zirala Islandia'ra.

– Eta, iztegi ori liburu bat da?

– Ez, eskuz idatzitako idaztiño bat baizik.

– Ternua'n indioekin artu-emanetan ondo ibilli aal izateko, mutil gazteak usten ebezan an neguan, Euskalerrri'ra etorri barik, ango berbetea ikasteko.

– Bai, baña batek ondo paga eban ikasketa ori.

– Negu artan gose aundiak eraginda jan eben koittarua.

UMERIK GERATUKO OTE DA?

– Aur-galtzea onartuta dago.

– Gañera iru illabate orduko, edozer arrazoigaitik.

– Eta al bada, merke, ezer ordaintzeke.

- Era orretara umerik geratuko ote da?
- Ez kexa, beltzak etorriko dira ordez; an asko dagoz.
- Bai, lenago baserriak ziran kaleak umez betetzen ebezenak, orain berriz ez baserrik ez kalerik ez dabe umerik emoten.
- Badakizu Erodes'en ipuña?
- Ez, ez dakit.
- Ba, urteero Aur Errugabeak, Erodes'ek Belen'en ildakoak, onen illobira joaten omen ziran dantzara. Erodes jeiki eta arin-aringa lapur-zulo batean iskututzen omen zan. Baña, lapurrek ostikoka botatzen eben andik, eurak sekulan ume-iltzalleak izan ez diralako.
- Ondo egiña, zer arroio gero?
- Andik, Begibakar itxaslapurraren ontzira, salto eta onek bere esku-motzak in aurpegian jo eta: "kanpora ontzitik, nik ez dot umerik iñoz-be il.
- Eta, bitartean zer egiten eben Aur Errugabe onek?
- Bere ondoren ibilli garraxika. Baña, ies dijoala, etxe batean sartu zan eta gela-barruan emakume bat topa eban bere aurra galtzen. Eta orduan Erodes'ek Aurrei aurpegi emon eta onela esan eutsen: -Nik, gaiztoa izanik ere, ez det neure aurrik il, iñorenak, baizik. Ama onek, ordea, bere aurra il du.
- Eta, Aur Errugabeak, zer?
- Buru-makur eta lotsaz beterik alde egin eben eta arrezkero ez omen dira geiago Erodes'en illobitik agertu.

IKURRIÑAREN EUN URTEAK

(14-7-1994)

- Jose Ignazio Urbiet jauna, nungo batalloian izan ziran gudari gerratean?
- Itxarkundia Batalloian.
- Zure talde orren ikurriña nun dago?
- Gaur ez dakit nun egongo dan, baña orain ogei urte inguru Doniane Loitzune'n ikusi nuen, Onaindia'tarren etxean. Antxe musu eman nion.
- Eta, gaur zertan ekiten dezu?
- Jubilatua nago, baña nere lan-bidea Santuak eta arteko lanak berrizatzea izan da.
- Beste lan-biderik izan al dezu zeure bizitzan?
- Bai Donosti'ko Real'aren jokalaria eta entrenadore ere izan naiz aldi batzuetan.
- Eta, gaur, Ikurriñaren eun urteko muga onetan, zer egin bear dezu?
- Deba'ko Udal-etxeko enparantzan ikurriña jaso bear det.
- Eta, zer esan bear dezu une orretan?
- Auxe:
- "Gaur gure aurrean daukagun ikurriña, ez zan zerutik jetxi. Lurrean egiña da. Baña, orain dirala eun urte, ez gendukan euskaldun guztien ikurriñarik...
- Baña Sahino Arana'k erakutsi zigun, gure aberria

emen dagoela. Euskadi dala euskotar guztien aberria. Euskalerrria euskera dakitenen erria da; zori txarrez, gure lurraldeetan euskera galdu zan... Orregaitik edo, Sabiñ'ek Euskadi izena asmatu zuan guztien Aberria dalako...

Euskadi berri onek ikurriñ bat bear zuen eta orduan Sabin eta bere anai Luis'ek Euskadi'rentzako ikurriñ bat asmatu zuten: Gorria euskal odola bezelakoa, orlegia gure mendien antzera eta zuria euskal zerua eta sinismena bezelakoa...


Franco eta Mola'ren aurkako burrukan errepublicano espainolek beuren bandera zeukaten: Gorria, oria eta morea eta "miliciano" deitzen zitzairen. Gu, berriz, euskotar abertzaleok, gu giñan "gudariak" eta gure bandera Sabiñ'ek asmatutako ikurriña zan. Arekin ibilli giñan mendirik-mendi gure erria defenditzen eta arekin joan erbestera, gerra galduta gero...

Ainbeste gora-beera izandako gure ikurriña, Franco'ren eriotzaren ondoren, agerian ikusi degu baztar guztietan.

Gaur degu ikurriñ orren eguna. Ainbeste nekez lortua...

- Luze itz egin zenduen.
- Orain gauza asko moztu ditut.
- Zorionak ba, gudari zaar.

BARTOLO ARROPAIN'GO



EUSKALERRIA

(Lekeitio'n,1971-4-30)

GAZTEDI-CLUB

Lekittarrak: Gaurko gai onek ez doraz sekulan be itzaldietan erabili. Idatzi, bai, idatzi doraz... Ez dakit berbaldi au euskera batuan, bizkaiera edo gipuzkoera naastuan edo ta esperanton izango bada ere... Zuek entenditzen ba dozue neure berbetia kongorme ixango naz ta... "dakixenak badakixela eta eztaixenak ikasiko dabela..." Neu be ikastera nator zeuekin batera.

Askotan pentsatzen ixan dot geure ondarreko attittta morkordok (edo "aitza makurrak") zertzu gauza ikusi ta entzun ote daben berak amen Lekitton... Gaurko egunez ikusten dabezanan geuk be ikusten doguz... Entzun be entzun dituz... Euskeraz...? Ala erderaz geixao...?

Baiña, goizan gizaldietan ziar, aurrera ta baporen orde, portuan atunetako trañneru aundixak ikusiko doguz, Benito Kukumarro gaztia zakeko trañneruak. Aurrerago joaten ba gara, bakallautako bela aundidun ontziak ikusiko doguz, Terranobara joaten ziranak... Aiekin batera eta aurrerago aiek baiño, bale-arrantzuan ikusiko doguz lekittarrak... Abillak zirian ortan be. Ta aberatsak. Orrelako elixa ederriz ez dago Euskalerrri guzian...

Lekittoko errixa kai-inguruan sortu zanian orma-lodiz inguratu eben, lapurrak itsasotik etortzen ziriela... Aurrerago ta aurrerago, zer...? Orain lau milla urte, zer...? Attittta makurra bera testigu bakarra: inguru guztian ondarra... Mendietan, gixonak... Lumentxa-koban eta txaboletan... Euskaldunak zirian ta euskera beuren berbetia... Geure berbetia ta eurena etzan bardin-bardiña ixango; baiña, euskaldunak zirian eta euskeraz itz egite eben... Ezeben esango ez berbetan ta ez bebetarik... Zergatik ez? "Berba" itza latinetik artutakua dalako... Noiz? Orain bi milla urte edo... Urte milla asko da Euskalerrrian euskeraz egiten dala ta urte-milla asko da Lumentxako koban eta Mutrikuko Jentilletxeta koban eta Debako Urtiaga ta Ermitia kobaetan eta Kortezubiko Santimamiñe koban eta beste koba askoetan (eta kobeetatik kanpora berdiñ) euskaldunak bizi ziran ta euskaldunak euskeraz egite eben orduan... Zelan dakigun ori...? Gaurko egunean gizonak lanerako tresnak burnizkoak ditu; baiña, Lumentxako lekittarrak arrizko tresnak erabiltze ebazan lanerako... Ta tresna oien berbak edo itzak orduan sortutakoak izan ezkerro, normala litzake, berbok tresnen modura, arrixakin edo aitzakin egiñak egoria... Esate baterako: aizkora berbiak be "aitz" dakar berarekin: aitz-kora... berdin: aitz-urra (orduko beste tresna bat=, aist-o (kutxillua), zulak-aitz (taladrúa)... Arri-aroan (Edad de Piedra) euskaldunak emen bizi ziran ta arrizkuak tresnak zirelako (ez guztiak, egurra ta azurra be erabiltzen ebazen armak eta tresnak egiteko...) aitz edo arri izenakin egindako berbak jarri eutse zan tresna, arma ta instrumentu aieri...

ZAZPI ANAI GERA

Auñamendi-ren bizkarrean bizi gera geienok.

Auñamendi, Pirene-mendiak dirala aspalditik dakigun gauza da. "Auñamendi" itza euskalduna dalako, geienetan beintzat "Auñamendi" esango degu guk Pirene-mendez orde.

Auñamendiko bizkar-ezurretik pasatzen da gaur, Frantzi ta España arteko muga.

Muga orrek erdibitzen du Euskalerrria.

Mugatik Frantzi aldera daude Lapurdi ta Zubero. Baita Nafar-behera ere; baiña Euskalerrriko zati au, Nafarroarekin bat egiñik egon da beti, oraintzu arte.

Nafarroa, Guipuzkoa, Araba ta Bizkaia mugatik España-runtz daude.

Iru zati andik, lau emendik: orra zazpi zati.

Zazpi anai. "Zazpirak bat" esan oi da.

"Zazpirak bat"-ekin agertu oi dean margazki edo dibujoak, sei eskudo ta arma-arri bakarrak ditu. Zergatik sei, zazpi bearrean...? Lenago esan degun arrazoiagatik: Nafar-behera Nafarroaren zati bat zalako. Biak bat ziralako, bien artean ez dago aema-aari bat besterik. "Boskarren Merindade" "La Merindad de Ultrapuertos" deitzen zioten nafarrak Nafar-behera arri.

ERRI TXIKI, ERI BAKAR

Aiñ txikia izan arren, ezaguna da Erri au munduan zear. Zergatik?

Gauza batzuetan iñor ez bezelakoa dalako.

Isla edo ugarterik ikusi al dezu beiñ ere?

Lurra, urez inguraturik: orra zer dan ugarte bat. Ura besterik ez bere inguruan; baiña bera, ugarte, ez da ura; bera, lurra da. Euskalerrriari gertatzen zaiona ere orrelakoxea da:

Europaren ertz batean, or dago Euskalerrria, beste erri ta arrazaz inguraturik; bere senidekorik, ordea, ez dago bat ere erri ta arraza oien artean.

Senide gabe.

Bakarrik: ugarte itxasoaren erdian bezela...

Aizkeneko eun-da berrogeita amar urte auetan makiña bat jakintsu urbildu da gure-gana, jakinmiñak eraginda...

Zertara?

Gaurko Eguneko Euskalerrria ezagutu ta bere aurreko aztarnak billatzera.

Batzar guziak zeatz aztertu dituzte, bide ta bidexka guziak zeatz aztertu dituzte, bide ta bidexka guziak ibilli, astarenrik nundik aterako.

Bere lanak alperrikakoak izan ezpadira ere, gauza garbirik ez digute oraindikoz agertu ta erakutsi.

Euskalerrriaren sortzea, oraindik, lañopean degu.

Illunpean.

Illunpe orretan arti apurren bat ba-da: orratik krisalluren batzuek piztuta daude.

Krisallu oien argitara zer ikusten dan begiratuko degu, esku artean dakargun lan onetan.

Erriarekin gertatzen dana, gertatu oi da euskaldun min-

tzairakin ere: gure euskera ederraren asiera ta iturbururik ez dala iñundik agertzen.

Euskeraren seniderik ez da iñun.

Munduko izkera guzien artean, or gado bera ere bakar-bakarrik.

Ezagunik gabe.

Seniderik gabe.

Famili gabe.

Euskalerririkiko misterio onek lillurutzen ditu jakintsuak.

Eziñ argirik atzeman orrek irrikatzen ditu, Euskera ta Euskalerraren iturburu-billa, geroz da amorru geiagoz saiatzeko. Abentura oberik ez dago, gaurko egunez jakintsuentzako.

EUSKALDUNA GORPUTZEZ

Goazen gaurko euskaldunen berri jakitera.

Antropolojiak, errien soiñ edo gorputza du jakin-gai:

gorputzaren neurriak,

azalaren kolorea, illeena edo begiena.

Baña, batez ere, buru-egur edo kalabera.

Buru-azurren luzero, zabalero, mutur, sakon ta koska guziak zearo miatuta gero, euskaldunak, gai oneri buruz, tipo berezikoak gerala, esango digute antropologoak. "Raza Pirenaica OccidentaP" jarri diote tipo orreri izena: Auñamendi Sarkaldeko Arraza".

ODOL BEREZIA

Giza-arteetan odol-mota asko daude.

Gizon batzuen odolean "A" deritzan elemento kimiko bat arkitzen da. Beste batzuetan, berriz, "B" izenarekin ezagutzen dan beste elemento bat. Ez "A" ez "B" ez dutenak, oiek dira "O" tipokoak: utsak, alegia. Beste odol batzuetan, "A" ta "B" elemento biak arkitzen dira.

Orra lau tipo-klaseko odolak: "O" "A" "B" ta "A-B".

Arlo oneri buruz konparatu ditzaigun Frantzia, España ta Euskalerrria. Ona emen konparazio ortatik zer agertzen zai-gun:

	(Frantz)	(Espa)	(Eusk. E.)
"O" taldekoak	43,3%	39%	57,2%
"A" taldekoak	42,2%	47,7%	41,7%
"B" taldekoak	11,1%	8,9%	1,1%
"A-B" taldekoak	4,4%	4,4%	

1954 ta 1959 egindako liburuetatik artuta daude berri auek.

Goiko lerro oietatik ateratzen zaizkigun erakutsiak, auek dira:

1.- "O" taldekoak asko diralako euskaldunen artean. Euskalerrriko odola odol garbia da.

2.- "A" taldekoak ere asko diranez, sartaldekoak (ozidentalak, alegia) ta ifar-aldekoak omen gera euskaldunok.

3.- "B" taldekorik ez dago ta ez gera sartaldekoak, orientalak (ozidentalak, baizik).

Itz batean:

Euskaldunak odol garbikoak, ozidentalak, ifaraldetikoak gerala, eta inguruetaoekin desberdiñak.

Orra zenbat gauza, gaurko euskaldunen odolak agertu...

Buruko ezurren estudiantik "Auñamendiko Sartaldeko Arraza" (Raza Pirenaica Occidental) giñala atera ziguten; orain, berriz, odoletik gauza berbera aterako digute: naastu gabeak ta Euripako okzidentalak gerala, alegia.

Europarrak, sartaldekoak ta garbiak (beste arrazakin gutxi naastutakoak).

Beste era barera esan:

Emengoak gerala, emen bizi gerala aspaldidanik (gure ezurrak eta odola formatu ziran ezkerotik...).

Elemento "Bh"

Giza-odoletan beste elemento kimiko bat billatu berria degu: "Rh".

Milla bederatzireun ta berrogeigarren urtean arkitu edo topatua.

Mila bederatzireun ta berrogeita bostgarren urtean Etcheverry medikua, euskaldunen artean elemento "Rh" ori etzala ugaria, konturatu zan.

Euskaldun askoren odolean palta zala.

Asiako jende orien artean ez bat ere palta duenik (0%).

Afrikako beltzeen artean eunetik bostek (5%) palta du.

Azal zuriko europarren artean eunetik amabostek (15%) palta du.

Ta euskaldunen artean zenbatek palta du elemento ori.

Irureun ta irurogeta emezortzi Arjentinako euskaldunen artean, eunetik ogeita amalauk etzuala elemento "Rh" igarri zion Etcheverry jaunak. Arrezkero euskaldunen artean beste examiña, analisis ta asterketa asko egin dira: eunetik ogeita amabost (35%), ogeita amar (30%), ogeita zortzi terdi (28, 1/2%)... izan dira "Rh" gabekoak. Baña, Frantziko euskaldun baserritarren artean, eunetik berrogeita bik (42%) etzuten elemento ori.

Zer erakutsi dakarkiguten gertakera auek?

Lehendik ikasita daukagun gauza bat:

Odol berezia (especiala), garbia, ozidentala, bere inguru-koek ez duten bezelako odola dutela euskaldunak...

Etcheverry jaunak dioanez, Euskaldunak Europa zaarreko zatirik garbienak gera... Prehistoriako Europa errietatik zatirik espezialena ta bereziarena...

Berba bitan:

Euskaldunak antxiñako europatarren semeak gera. Aieta-tik sorturiko erri garbirik ez dago beste bat Euskalduna besterik. Beste guziak geroztik etorritako erri ta arrazakin naastu ziran naaste oietatik sortu dira euren odoletan dauden ainbeste elemento kimiko (A, B, Alta B, Rh...) Oiek dira naastearen ezuagarri. Gure artean elemento orrelako elemento giti dagoelako, gera odol zaar ta garbiagokoak...

Erri zaarra izan arren, erri garbi ta gaztea.

Senideartekorik gabea.

* * *

Berarekin zer-ikusi askorik ez duten erri ta arrazez inguratu.

Odolari gertatzen zaiona, gerta oi zaio mintzairari ere: gure euskerari.

Erria ta bere espiritua, odola ta bere izkuntza, garbiak diaraute oraindik.

Noiz arte?

Gure erriaren etorkizuna geure eskuetan dago.

ITZALDIA

NOIZTIK GAUDEN EUSKALDUNOK AUNAMEN-DIETAN

Gizonaren aztarnak eta arrastoak antxiñakoak topatu oi dira Pirenee mendietan. Pireneos auñamendi da euskeraz. Auñamendi inguruetan antxiña-antxiñatik bizi da gizona. Historia aurretik. Prehistoriatik. Baiña... Gizon Euskalduna noiztandik...?

Euskalduna, Kristautasuna sortu baiño millaka urte aurretik Euskalerrian bizi zala ziur-ziur ta seguru-seguru esan genezake. Ta euskaldun erriaren gauzarik arrigarriena auxe da:

Beti bat iraun duela, erri bezla ta izkuntza bezela... Urtietan tiar gauza asko aldatu ta kanbiatu dira, baiña erria, izkuntza ta erriaren moldea, gureganaiño eldu da... Sustraiia, munak, mamia era bat aldatu gabe...

Euskalerria erri bakarra. Isla edo ugarte.

Orrek ez du esan nai iñorekin artu-emanik izan ez due-naik, ez.

Artu-eman ugariak izan ditu beti inguru guziko erriekin. Gauza asko ta asko artu ditu bere ingurutik; baiña, artu dituan oiek bere erara artu ditu; bere odol ta aragi biurtu ditu bere arima bereizik galdu gabe...

Euskera ere, lenguaje askoetik itzak eta berbak artu arren, beti euskera gelditu da: bere izakeran, bere joskeran, bere munitan, bere animan aldakintza ta kanbio aundirik gabe... Orobat gerta zaio Euskalerrian beste kultura-gai askoetan ere.

Beste errietatik ikasiak milla moduko gauzak ikusiko dituzu Euskalerrian pentakeran; baiña ez du euskalerriarik galduko... Jan eta edaten ditugunak gure aragi ta odol biurtzen ditugu ta asko janagaitik ez degu gure nortatua, gure personalidadea, gure izena galtzen... Ta kanpotik arturiko elemento asko gure-gureak egiten ditugu: e.b. artu dezagun pelota ta txapela. Pelotan Euskalerritik kanpora ere egiten zan baiña guk geure-geurea egin degu ta gaur pelota jokuari: pelota vasca esan oi zaio... Txapelakin berdin: beret basque frantze-sez, boina vasca erderaz, basca, besterik gabe, italianoz... Ta berdin du Kristautasunarekin ere: bere odol ta aragi biurtu zigun kristautasuna, Euskaldun-fededun esan al izan arte. Ta "euskaldun fededun" egia izan da orain urte gutxirarte...

GEROZTIKO PALEOLITIKOA TA GAURKO EUSKALDUNAK

Gizonak arri-landua erabilitako garaia Paleolitiko izena-kin esagutzen dogu. Baiña Paleolitiko orrek, urteak oso luzeak ditu. Denbora luze ura bi alditan erdibitzen: Antxiñako Paleolitiko Zaarra (Paleolitico Inferior) ta Geroztiko Paleolitiko (Paleolitico Superior). Garai artatik asi gindezke erri bateri Euskalerrri esaten: gaurko eguneko euskaldunok ordu-tik gatoztela, alegia...

Oraingo euskaldunok ordukoen senide gera. Ta ori esateko eskubidea Yakintzak ematen digu... (Emen ezin neike puntu guziak garbitzen ekiñ, baiña garbitasun geiago nai duanak irakurri dezala nere LA RELIGION PREHISTORICA DE LOS VASCOS erderaz edo ta EUSKAL ERRI ZAARA, euskeraz.

Antxiñako Euskalerrri zaar ura nundik etorri ote zan?

Iñundik etorritakoa danik ez dakigu. Arrezkero emen bertan dagoela, ori bai ba dakigu. Garai aietan ba zan Auñamendi ingumarietan (Europako lurraldeetan) Cro-Magnon deritzaion erribat (Homo Sapiens Fossilis)... Oraingo euro-patarren antzekoa, Afrika iparraldetik edo Asia Txikitik ona etorria...

Cro-Magnonekin zer ikusirik ba ote du Euskalerrriak? Izan leike, baiña gauza garbirik ez dakigu...

Noizkoak geran? Amabi milla urtetik gorakoak...

Arrezkero emen gaude Auñamendiren inguruan... Odol bereizi, espezial... Kalabera-ezur bereizi... Izkuntza bereizi... Erri espezial.

Ez degu esaten besteak baiño erri ohea edo txarragoa danik: erri berezia ta aparta dala esaten degu. Egia dalako esaten degu, esan ere. Ez dago emen razismorik: egiaren billa gabiltza: gure erriaren egia...

FRANKO KANTOURI KULTURA

Asturiastik asi, Kantouri mendiak pasa, Auñamendi guzia igaro ta Dordoñara eldu. Orra mendi luzeak... Orra bide luze... Mendi oietan koba, leize ta arkaitz-zuloak ugari. Zulo oietan bizi ziran Paleolitiko-gizonak. Gure aurrekoak.

Gure gaurko Euskalerrria ez da ainbeste zabaltzen, ez. Baiña, mendi guzi oien erdi-parean, danen ardatz bezela, dago gure gaurko gure Euskalerrria.

Aldamenak eta egalak galdu ditu; muñik eta mamirik ez. Arbola zaarraren antzera ertzeko adarrak igartu zaizkio; trunkoa edo enborra, sustraiak eta erdi-erdiko adarrak ez, oraindik beintzat. Oiek berde agertzen dira. Arbola zaarrari bizirik irauten lagundu bearko diogu. Ta kimu berriak ateratzen...

Kobak ugariak dira. Altamirako kobea izen aundikoa da mundo zabalean. Euskalerrriko ertzean dago: Santanderren (Antxiñako Euskalerrrian). Santandertik Asturiaera ta ona zertzuk koba dauden: (pag. 41: Euskalerrri Zaarra).

Koba auek guziak FRANKO-KANTOURI kulturakoak dituzu ta jakintsuen eskuetatik pasatutakoak... Kultura orren erdin-aldean daukagu gaurko Euskalerrria ta Santimamiñeko kobea.

Kobe auek gure aurrekoen jaregiak ziran. Batzuek eliza ziran. Kobeetatik kanpora ere bizi ziran; baiña euren etxe-bizitzaren arrastaorik ez daukagu, material ustelgarriaz eginda zeudelako... Gure errietan ere beste orren-beste pasatzen da: etxeak galtzen dira, baiña torreak, eleizak, gazteluak geiago irauten dute gogorragoak diralako... Leize zuloak eta kobek aitz bizian eginda daudelako geure etxe, torre ta gazteluak baiño iraunkorragoak ditugu...

Kobeak bizitzarako oso ziran egokiak; baiña, etziran beti etxe-bizitza bakarrik izaten...

Zenbait kobeetan gauza miragarriak azaldu zaizkigu. Ba ziran gizon aien artean artista paregabeak ere... Ormeetan utzi ziguten beren trebetasunaren agerpena: zoragarriko margazki, marrazki ta grabadoak... Emen bizi ziran animalien irudiak ugari... Zer animali? Mamut, elefante, leoi, artz, otso, bisonte, besauntz, zezen, zaldi, reno, basurde, axari ta

abar... Txoriak... arbolak, sariak eta eskuak... Orra zenbat gauza dauden kobeetako ormetan.

Gizonaren irudirik ez da agertzen marmo jantzita ez bada. Animalien antzera jantzita bai ikusten dira...

Kobearen zein tokietan daude irudi oiek? Arritzekoa da orrelako marrazki ta pintura ederrak bistan ez egotea... Bistan ez baiño leku illunetan daude. Bertara joateko erreztasunik bat ere ez... Ori orrela izateak buruausterik asko ekarri zien jakintsuai...

Zergaitik pintura oiek toki illunetan? Zergaitik ez da gizonaren irudirik ikusten? Zergaitik dituzte beuren gorputzetan animaliak arma-arrastoak? Arrak bakarrik? Zergaitik emeak ez dituzte arma- arrasto biek? Zergaitik asko dagoz or illunpe oietan.

Ona jakintsuen erantzun batzuek:

Leku illun eta gaitzetan ba daude marrazkiak, pinturak eta beste edergarriak, euren aurrean aztikeri ta sorginkeriak egiten zituztelako da ori... Orretarako jarri zituzten dauden lekuetan.

Gizonaren irudirik ez da marmo jantzirik ez bada ta animalien itxuran... Zergatik? Gizonaren animal-i-txurako irudiak aztiaren irudiak dira. Animalien antzera jantzi ta egiten bai dituzte gaur ere euren aztikeriak erri atzeratuen azti edo magoak edo brujoak...

Beste arrazoi bat ere ba dago: aztikerietan sinisten zuten erri atzeratu oietan, ez du iñork erretratorik ateratzerik utzi-ko... Zergatik? Erretrato ta gizonaren artean indar bat dago (eurak sinisten dutenez) ta nik erretratoa neure menpean ba det, gizona ere nere menpean izango det. Aztiak ba du indar ori bereganatzeko aalmena ta poderea. Podere onek ematen dio aztiari, brujoari, azti-izatea. Podere ori gabe ez litzake azti izango... Gauzak orrela ba dira (ta aztikeri ta sorginkeriaren sinisten duanarentzak gauzak ala dira), norbere erretratorik eta irudirik ez luke iñork ateratzen utzi bearko; bestela nere etsaien eskuetan nere irudi edo erretratoa eroriko balitz, beti etsaiaren mende egongo nitzake, nerre erretratoa bere mende dagoelako... Orregaitik ez da kobeetan gizonaren irudirik marmo jantzita ez ba da. Marmo jantzita iñork ez zaitu ezagutzen...

Animalien gorputzetan zergaitik ikusten dira arma-arrastoak...? Ori aztikeriak argituko digu: kazara irten aurretik animalien irudiari azkonda edo jabalina sartzen ta diogu, animalia berberari ere sartuta bezela izango da... Irudia zaurituta animalia bera erea zaurituta geldituko da...

Baiña eriotza ekarri lezakeen arma-arrastoak animalia emeetan ez daude, arretan bakarrik... Gaurko Eizerako alkar-te ta legeak ere ori berbera agintzen dute: animalien arrak il baiña emerik ez... (Matia de conservacion)...

AZTIKERI TA SORGINKERIA

Oraingo Euskalerraren zenbait oiturretan ere ba da orrela-ko zenbait aztikeri ta sorginkeri. Gure aurrekoak kobeetan aztikerietan sinisten ba zuten, guk orduko oiturak ez ditugu oraindik zearo aaztu... Ona gauzatxo batzuek esan:

Gaur ere ba dira sinisten dutenak gauza baten eta bere imajiñaren artean ba dala *indar* bat.. Indar orreri euskeraz *adurra* esaten zaio... Indar ori sortzeko imajiña bat edo sin-

bolo bat edo kuñu bat bear da... Aztia da indar ori sortzeko poderea ta aalmena duena. Edozein kristiñau izan leike azti; baiño, aztikerirako daudenak dakite iñork baiño obeto, zer irudi, zer imajiña, zer sinbolo, zer kiñu aukeratu bear dan indar edo adur ori sortarazteko... Adur orreri ezker, gauza bat menperatzeko bere irudia menperatzea naikoa izango degu... Prehistoriako gizonak zer egiten zuan ikusi degu. Orduko erriaren semeak gera eta geuriari eusten ez digu askok irabaziko... Gaurko siniste ta oituretatik, orduko arrastoa ta kutsua atera dezakegu... Oraindik ere ba da aztikeri ta sorginkeri asko gure artean... Persona bat erretzea nai dezu? Argizari-kandela bat egizu persona orren irudiko eta kandela ori erretzea naikoa dezu, persona berbera erretzeko ere. Berdin gertatu oi da txanpon-diruakin: diru bat okertzen degunean, txanpon orren irudia okertzen degu ta irudidiakin batera, txanponaren jabea edo guk jabe bezela aukeratzen deguna, ere bai.

Aurrari ortz berriak ateratzeko, suari ontz zaarra eskeintzen zaio nela esanaz: "Tori zaarra / t'ekarri berria". Edo ala: "Andra Marie / otzon or zaarra / t'ekatzan berrie". Ona beste era bat: "Mari Tellatuko / gona-gorri-dune: / otzi agiñ zarra / ekazu berrie..."

Ta sorgiñak uxatzeko sistema? Oillarraren kikirriki... Suari gatza botau... San Juan eguneko suakin solo-bazterrak aztindu onela abestuaz:

"San Juan dala San Juan / gure goiko soruan / sorgiñ begia galdu da; / galdu da ba, galdu bedi; / sekulan agertu ez-paledi..." Edo au: "San Juan gaur dela / biar dela Donienez; / Etzi San Juan , biyaramonez / gure soroan lapurrik ez; / sorgiñik b'ez! / Ba dagoz bere / erre beotez / San Juan / Artoak eta gariek / gorde / Lapurrek eta sorgiñek / eta beste peste guziek / erre."

Eta kortetatik espiritu gaizto ta gaitzak aterateko zer egiten degu...? Onena da karda-lorea kortako atean jartzea...

Karda-lorea "eguzki-lora" ere esaten da.

Espiritu txarrak eta gaixoak eta gaitzak aldendu ta kentzeko ona iru gauza: oillarraren kantua, sua ta eguzki-lorea. Irurak gauza bakar bat dirala esango nuke nik. Ona zergaitik. Oillarraren kantuak argia etortzen asi dala dio... Suak argia dakar berarekin... Karda-lorea, eguzki-lorea, Eguzkiaren irudia da...

Argia illunaren kontra. Illunpeetan dabilta espiritu gaizto ta sorgiñak... Onak, berriz, argiarekin datoz... Argia biziarekin dator ta bizia argiarekin... Illunakin eriotza ta eriotzakin illuna... Illuna espiritu gaizto guzien antza ta irudia da. Illuna argiak garaitzen du ta argi onekin garaituko ditut illunaren irudi diran espiritu gaizto guziak ere... Ona aztikeriaren mamiñean sartu.

Pedernales euskeraz Sukarrieta da. Sukarria ta pedernal bat dira.. Sukarritik sua ateratzen da. Gure gaurko aizkorak burnizkoak eta galtzairuzkoak ditugu, baiña antxiñako euskaldunen aizkorak arrizkoak ziran: zukarrizkoak, pedernal-zoak. Ta, aizkora, tximistaren kontrakoa da. Tximista da oñaztarria... rayo. Etxee edo txabolaren atean edo ate aurrean aizkora, agoa-gora, jarri ezker, tximistak edo oñeztarriak ez dio kalterik egingo gure etxeari.

ITZALDIA

Lanerako balio ez duten, suarrizko aizkora txikiak arkitu oi dira zenbait dolmen edo jentillarritan... Lanerako gai ez-paziran zertarako zeuden an...? Tximistetatik dolmenak (ta bere barnean zeudenak) gordetzeko. Beste arrazoirik ez da inun nabaritzen.

Suarria tximistaren irudi da; bere barrutik ateratzen bait ditu suak eta tximistak... Suarrizko aizkorak, berriz, sua atera eta gauzak ebaki... Tximistak ez al ditu gauzak ebagita uzten...?

Dana dala, aizkora gura mende ba'da (aoa gora begira), tximista ere gure mende egongo da, aizkora tximistaren irudi bait-da... ta irudia menperatzen duenak (dio Aztikeriak) irudiaren gauza berbera ere menperatuko du.

1963'garren urtean, Donostiko San Telmo museoan, tximistaren kontrako beste zer batzuek ere ba-ziran: magurio edo karrakal izenez ezagutzen diren itsas-ertzeko karakol txikiak Naparroako Agiñaga Ballerako Trinitade mendikoak. N° 3.341. Arrindakoak ("fossilak") dira, mendi ortako magurio auek. Mueso orretan zegoan (N°. 3059) azkonar-anka ere, sorgiñen kontrakoa; eta berdin baita triku-larrua ere. (N° 2410).

Zingiñarri bat ere bazegoan (N° 2964): "zingiriaren kontrako arria".

Zingiria, umeak zaitzen ari diran emakumeen bularreko gaitza da. Zingiñarriak ugariak dira gure artean; ta ari batetik lepotik zintzilika erabili oi dira. Kristal urdiñezkoak dira; eta ertzak zuriantzeko.

Auen antzeko zingiñarriak dolmenetan billatu oi dira; eta dolmenak ba-dituzte gure artean lau mila urtetik gora...

Ktunak.

Egur ikatza boltsatxoan "begizkoaren" kontrako.

Ikatzarekin batera erramua ta zilla, ollo-ziriña ta belarrak jartzen ziran kutunetan.

"Begizkoa" sorgiñak umeeri egiten dieten gaitza da; begiz jo.

Aizkorri ta Aralarko artzaiak, kutun auek ardieri jartzen dizkiete zintzarri baten barruan, ardia begizkotik libratzeko...

Txintzarriak berak ere izan oi du, abereak begizkotik gordetzeko indarra.

Arazo oneri buruz ba-da gure artean esaera ta ninisemenik asko...?

Noiskoak ote ditugu oitura ta siniskeri auek...?

Auskalo!

Antxiñakoak eta millaka urte betetakoak.

Lize-zuloetan aztikeritan zebiltzen Euskaldun aien semeak gera, ta aien espiritua gudan daramagu, nai badegu ta nai espadegu... Bataiatuak gaude; baña, alaz ere, aien aztikerien kutsuak gurekin dirau...

GURE AZTIEN INDARRAK

Aztiak eta sorgiñiak.

Zer dute biak elkarren antzeko? Indar bereizi bat ("Adur" izenekoa) berekin izatea: aztikeri-indarrak biak dituztela, alegia.

Zertan ez dira berdiñak?

Sorgiñ batzuek azti dira; baña ba-dira, olako indar berezirik ez dutenak, ere. Akelarreetara joaten ziran guztiak, "sorgiñ" ziran... aparteko indar ta adurrik ezpazuten ere. Orain egiazko azti ta sorgiñekin ari gera.

Akelar-zaleak utzi ditzagun alde batera.

"Belagille" ta "sorgain" dira sorgiñen beste izen batzuek.

"Soprgain-ek umeen jaiotza du bere ardurapean; baita, sorgiñengan sinistea gordetzea ere. Ataungo etxe bateko jostunen artean eztabaida sortu zan bein sorgiñen izateari buruz. Etzirala ta ba-zirala. Batek ez beste guziak sinisten zuten sorgiñak ba-zirala.

Sinisgabea etxera zijoala, sorgiñ-talde aundi bat agertu zitzaion bidean. "Ezgeala, baña, ba-gaitun. Maripetraliñ ez beste guztiak, emen gaitun".

Ori esatearekin batera, jostunaren burutik illeak ateratzen asi ziran sorgiñak bakoitzak ille baña... Aizkenerako, jostuna buru-soil ta kaskamotz utzi zuten ille-muestrarik utzi gabe...

Ortik kontuak atera zenbat ziran...

ANIMALI ITXURAN

Bela-beltz, txerri, asto, elbi, txindurri ta, batez ere, katu-beltzaren irudia artzeko aalmena omen dute sorgiñak.

Ba omen zan anddra bat baserri batean, gauero-gauero sutondoan, ardatzean ari izaten zana. Katu beltz bat jeisten omen zitzaion tximinitik beera, etxeok lotaritzen ziran garaian.

Ikaratu zan etxeokandrea ta bere senarrari esan zion zer pasatzen zan gauero. Bera, andrearen soñekoak jantzita, sutondoan katuaren zai gelditzea asmatu zuan gizonak.

Etorri zan katu beltza, ta esan zion andrajantzitako gizonari:

"Gizona ta ardatzean...?"

"Katua ta izkeetan...?" Erantzun gizonak.

Ta erantzunakin batera sartu zion, saietsetik burruntzua katuari. ARtu ta leiotik kanpora bota zuan katu ori. bigaramon goizean, auzoko andrea zegoan ilda baratzean.

Sorgiñ eta aztien animalia biurtze onek, leize-zuloetako aztiak dakarzkigu burura. An ere, aztuak animalien antz-irudietan ikusten ditugu: mamorro ta zomorroz jantzita, abereen antzeko.

Sapoa da azti ta sorgiñekin zer-ikusi asko duan "mamorroa" azti ta sorgiñak ezkerreko begian omen dute sapoaren señaile ta irudia.

Gañera, Akelarreetan, sapo-zai eukitzen omen dituzte, batez ere, sorgin gasteak. Ori gutxi bait-litzan, sapoaren aragiakin egiten omen dituzte sorgiñak beren pozoi ta beneoak...

Ta akelarreetako akerra, zer...?

Animali galanta... Baña, akerraren berri aurrerago emanen degu.

BEGIZKOA

Animaliari ta gizakieri egiten die bere gaitza sorgiñak, begiz jotzen duanean. Ori da begizkoa.

Begizkotik gordetzeko dira kutunak, txintzarriak azkona-

rren anak eta abar. Iru aldiz ikutuzten ba-zaitu sorgiñak bere menpeko izan bearke dezu zeure bizi guzian andik aurrera.

Sorgiñaren irritziari iru aldiz erantzuten dionak, bere bizi arrixkuan jartzen du. Ala egiñ omen zuan etxera zijoan neskatza jostun batek...

Baña urengo egunean, ez omen zegoan an, ille batzuk eta soñeko pusketa batzuek besterik...

Beste iru neskatillari, berdin: irugarren irrintziari erantzuteakin batera, sua zetorkiela gañera ikusi omen zuten... Sartu dira laisterka, aurrean zeukaten baserri batean. Atea izterakoan, "sart" entzun zuten; egurrean bost atzapar-arrasto gel-situ ziran:

ETORKIZUNAREN BERRI

Gartu ala, urrutian gertatuko berri jakiten omen dute aztiak eta sorgiñak. XVI-XVII-garren gizaldian zenbait emakume, beuren senarren berri jakiteagatik (Terranova, Noruega ta Indietan zebiltzanak, noski), sorgiñ egiten ziran. Ala diote paper zaarrak.

AKELARREA

Gure aurreko guraso prehistoriakoak, leize-suloetan egiten zituzten beren aztikeri ta sorginkeriak. Historia ezkeroko Euskaldunak, sorginkerian egiteko akelarreetara joan oi ziran.

Akelarre famatuena, otsik aundienetakoak, Zugarramurdiko leizeetako akelarreak ziran:

Akelarreak egiteko beste leku asko ere ba-zeuden Euskalerrian: Larrun-mendia, bat.

Ataungo Mandobitako zubi-azpia, bi Orozkoko Garaigortako aitza, iru; Dimako Petralanda zelaia, lau... ta abar. Ta erri guzietako bide-gurutzeetan.

Akelarre, akerren larrea edo landa da.

Landa aietan biltzen ziran sorgiñak, akerra gurtzera. Landa erdian jarrita egon oi zan akerra.

Aundia ta beltza.

Akerrari atzekaldean musu-ematen zioten sorgiñak...

Gero, dantza zoroak egiten...

Arpegia mano edo zomorroz jantzita...

Ostiral-gaueetan.

Orra, akelareetan agertu, animalia (akerra) eta mamor, mamorro edo zomorroak ere, bai eta dantzak... Koba-zuloetan ere ba-giñuzen, Prehistori-aldean, animaliak eta zomorroak... Dantza egiten zuten ala ez, ziur ez dakigu; baña gure akelarrei edo Afrikako aztiari begiratu ezker, zer ikusten degu? Aztikeriak egiteko, aztia mozorroz jazten dala (animalien itxuran, leizeetako pinturatan bezela) ta mozorro jantzita dantzan egiten dutela.

Esaeratan askotan, akerrari "deabrua" esan oi zaio; ta akelarreetako jardunari, "Meza Beltza"...

Akerra (ta deabrua), mozorroz jantziak, dantzak eta izkanbilla (edo Meza Beltza) orra akelarreak zer diran. "Akelarreko baratzan, sorgiñak ezpata-dantzan: esaera zaarra.

ANBOTOKO SORGIÑA

Ezaguna da Euskalerrri guzian.

Bere izena? "Mari".

MARI, Anbotoko Sorgiña, sorgiñ danen buru bezela agertzen zaigu histori zaarretan.

Sorgiñ guzien erregiña, beste sorgiñ askoren antzera, leize-zulo batean bizi da. Leize-zulpan bizi ta animalien itxura-azaldu: emakumea izan arren, tarteka, auzten anak eta saia-renak artzen ditu; beste batzuetan, berriz, zaldu, zezen, ari, putre, suge edo beste piztien irudi osoak. Baña, gai auzerora zeatzago aztertuko degu.

,

Leize-zuloak, sorgiñak eta animaliak.

Ona iru gauza begien aurrean aukitzekoak.

Prehistoriko-euskaldunak ere, leize zuloak, animalien irudiak eta sorgiñ-aztiak ezagutzen zituzten... Aztikeriak, eizerako ta eizera gabe, egiten zituztela badakigu.

Ta, ez al gera gu aien seme...? Aien aztarna. Atz, zantzuta eta kutsua ez degu oraindik zearo galdu.

Gauza arrigarria, benetan, auxe da. Arkeologiak esana, uraxe berbera agertzen digula Etnologiak ere... Gure arbaso zaarrak koba-zuloetan sinisten zutena gaurko eguneko euskaldunok ere, ori berbera sinisten degula dirudi... Koba-zuloetako marrazki ta pinturetatik jakintsuak ateratzen dituzten zenbait erakutsi, ta MARI'ri buruz gaurko euskaldunen pentsakerak agertzen dituanak, alkarren antzekoak dira...

Gure zenbait siniste, koba-zuloetan sortu ziralda esatea, alrebeskeri aundiren bat al da...?

MARI'ren berri jakiteak, orduko gauzaen berri jakiteko lagunduko digu. Bere argiarekin, Prehistoriaren illuna argitu lezaiguke, ta Arkeologiak erakutsitakoa, sendotu ta konfirmatu.

NOLAKOA DEGU MARI

Era askotakoa agertzen zaigu MARI.

Garro aundi baten antzera ikusi zuten beñ Oñatin, sua dariola.

Sutan dijoan arbolaren globoaren irudian, ere bai: mendi batetik bestera pasatzen dala... Koba-zuloan sartzean, ikaragarrizko zalapartak atera oi ditu.

Noiz-edo-noiz MARI'k illargia dirudi.

Edo bestela, illargia lagun duela pasa oi da.

Sutan igari dijoan emakumearen antzera ikusi oi zuten Anbototik Aloñara zihoala...

Ara emen sua ta MARI alkarrekin.

Etxeko suari eskeintzen zaizkio umeen ortzak, eta su orrek Andre Mari du izenez:

Andra Mari, otzon zarra
t'ekatzan berrie...

Gatza eskeñei oi zaio suari... Ta zutan erretzen dira erramuak, ekaitza danean Sanjuan-suak, gaitzak, sorgiñak eta espiritu gaiztoak aizatzen ditu gure etxe eta soroetatik.

Andre oso aberatsa da.

Soñeko politak, urrezko orrazia eskuetan. Urrezko ari-matazak, urrezko katillu baso ta krisalluak... Ikatza ere ba-du koba zuloetatik ateratzen danean, urregorri biurtzen dana.

Garroa, arbola, itaia, illargia, sua, emakumea... Ona zenbat gauza dan gure MARI.

ITZALDIA

Baña, ez da ori bakarrik; ba-da geiagorik ere.

Zaldi, zezen, aari, aker, bigai, suge, putre, bela-zaar... oiek denak Mari dira. Baña animaliairen itxuran agertu arren, esaera zaarrak dionez MARI; ta leize-zulotik irtetzen duanean, artzen ditu beste arbol, itai ta suaren itxurak.

Ibilli ta ibilli, ta beti toki batera jotzen degu... Leize zulo ta sorgiñ animalia antzekoetara, alegia.

Lur-azpiko MARI ta bere menpeko dituan sorgiñak, guziak animalia-antza dute... gizon prehistorikoaren sinismenaren arauera...

Zaldiak, basaidiak, basauntzak... koba-zuloetako putretan... ta zaldiak, zezenak, ariak akerrak... gure gaurko esae-ratan... ta auk ere, koba-zuloetan bizi diranak... Euskaldun prehistorikoak egindako pinturak, ona emen, berriz ere, gure gaurko eguneko euskaldunen buruetan bizirik, oraindik... Ez al da au arritzeko...?

ITZ BATEAN ESAN

Arkeologiak, Euskalerriko aitz-zuloetan ta Etnologiak euskalerrri bizi-bizian erakusten digutena, alkarren antzeko bi gauza dira: paralelismo baten itxura dute.

Bata besteakin ondo datoz.

Gauza arrigarria da.

Baña, edia da.

Euskalerrria, erri bera da, prehistoritik ona. Ezta erria ori oso aldatu arrezkero: barne-muñeko mami ta espirituak irauten dio oraindik... Orra zergaitik duen gure Euskalerrriak ainbeste balore ta garrantzia Europa Prehistorikoa ezagutzeko.

Gure Erriari gertatu zaiona (ordutik ona irautea, alegia), etzaio beste Erriari gertatu (Europa-errietan ariger). Gauza ontan, ez dago erririk gurearen antzekorik. Euskalerrria gal-tzeak (bere oitura, bere esaera, bere pentsakera, bere izkun-tza galteak) Europako Yakintzari kalterik asko ekarriko leioke... Erremediorik gabeko kaltea ekarri ere.

Ba da Euskalerrrian au ez dakian euskaldunik asko, ta ja-kinda gero sinisten ez dutenak ere, bai... Etxekalte dira orre-lakoak: norbere Erriaren aberastasunak uskeritzat artzen dituztenak... Kanpotik etorri bear guri gure aberastasunaren berri ematera... Intxaurrezko kutxa zaar landuak txatarreroari saltzen zaizkion bezela, salduko genduke gure euskal-gogoa, gure euskal mintzoa ta izkera...

Kobeetako zuloetan (marrzki ta pintura dauden tokietan) agertu oi dira Euskalerrri zaarreko aztikeri ta sorginkeriak...

Aztikeri aien antzekoak iksuten dira geroztiko akelarreetan: sorgiñak, marmo-jantizak animaliak (akerra batez ere...) Ta oietxek ikusten dira MARI, sorgini guzien erergeriaren inguruan ere...

MARI kobe-barruetan bizi da... Animalien antza du (aker, aari, zezen, zaldi, bigai, suge, erensuge,...) Andrea izan arren, auntzen anak ditu...

Kobe-zuloetako marrazkietan noiz edo noiz, animalien artean, arbolaren bat ikusten da animalien artean... Ta MARI ere ez d animalien itxurakin bakarrik kontentu; ba ditu beste antz-irudiak eta fiurak ere: arbola dala, aize-burrundara, laino zuri, illetargi ta suaren antzera agertu oi da kobatik kanpora dabillenean. Ori asko ez dala tximista ta oñeztarria ere bere eskuetan du...

Munduaren indar guztien bilduma ezpada MARI; gutxie-nez, beintzat, indar oiek bere mendean ditu... Ama Lurraren gogo ta espiritu ta arimia balitz bezela.

Uste, siniste ta oiturak (Anbotoko Sorgiñ Marirenak) guziak daude naastean... Baiña, dala dala, egi galanta auxa da: gaurko egiaren argiak atzoko illuna argitzen digula, orduko irudiak oso garbi ikusten ez ba ditugu ere...

Kobe-zulo barruetan bizi da MARI, Prehistoriako animalia margoztuen antzera... Kristautasunik artu ez ta jentil gelditzen da... Bi seme ditu: bata ona ta bestea gaiztoa, onaren eta txarraren ama bera balitz bezela... Berbera ere ona ta gaiztan da, biak batera... Ekaitz, tximista, oñeztarri, orzantz eta trumoi guzien jaun da jabe berbera da... Erantzunak ba ditu galdera guzientzat... Konjuroak egiten zaizkio... Meza ta diruak ezkeiñi... Aginduak berak ematen ditu gizonentzat...

Gaur arte sinistu izan diran gauza auk guztiak eraman ditzagun orain amarmilla urteeraiño, euskalduna kobe-zuloetan bizi zan denboraiño... Orduko bizi-bideekin ez al litzake auetako bat baiño geiago ondo etorriko...? Siniste auk, orduko siniste prehistoriakoak argitzen lagundu ote leikiguke...? Bai, zalantzarik gabe... Alkarren arteko antza geiegi daukate, biak jatorri batetik ez etortzeko... MARI azti papera egiten diardu; berak animaliena ere; bere inguruan egiten diran gauza asko (orakulo-erantzunak, konjuroak, elizkizunak, aztikeriak eta geiago) egiñ zeizkean orduko prehistoriko koba-eleizeetan ere...

Baiñan, izan leike Prehistoriako kobeetan ikusten ez dan zer edo zer agertzea MARIren siniskerietan ta au da zer ori: Ama Lurraren indar guzien jabe MARI dala berbera ez pada indar oien bilduma bat... Prehistoriko kobeetatik kanpora ere izango zala beste jainkoaren bat, iruditzen zaigu orduko euskaldunen artean... Baiña gaurko euskaldunen siniskerietan ez degu gauza ori garbi ikusten, estrato guztiak naastu diralako...

Aizea, ekaitza, tximista edo oñeztarria, trumoaia, txingorra, euria, illetargia, sua... orra munduko indarrak MARIren-gan... Munduko indar auen siniskerien estratoa izango zan zaarrena. Geroago sortuko zan aztikeri ta sorginkerien estrato berriagoa... Oien ondorengo estratoak ere ba dira geiago; baiña guziak naastean... Euskalerrri ondotik ez da kulturarik pasa, bertan bere kutsua ta usaiña laga ez duenik... Estrato guzi oien arrastoak, lausotuta daude, zinkinduta, alkarren artean korapillotuta, alkarrekin naastuta...

Zer izango da korapillo ori askatuko duen gizon edo emakumea...? Nork naaste-borraste ori argituko ta ordenan jarriko...?

Nik uste lan ta bear au ez dala gizon bakar batek egiten dauan lana. Danok alkartuta egin bearko dan lana degu bear au...




Leenengo antxiñatik eldu diran zer guziak bildu bear dira, apurrik eta ondokiñ txikienik galdu gabe... Gero ordenan jarri...

Orra nola gure Prehistoriko euskaldunen bizi-modua argitu leiken... guregan bizi bai dira oraindik orduko gauza asko... Noiz arte biziko dira guregan...?


Anes Arranegi'ko

EUSKALDUN BARRIENTZAT

8 ALDAKETA




Margotu izki bakoitzeko zatiak: R, gorriz; B, urdin argiz; V, orlegiz; J, oriz eta N, baltzez.



$$493394 \times 7 = 3453758$$

Uie bat geiago
Arri bat geiago
Osto bat geiago eskuman
Osto bat geiago ezkerrean
Odei aundiagoa
Buziana luzeagoa
Loreak osto bat geiago
Oñetako aundiagoa



Irudi onetan margo batzuk dagoz, bata bestearen ganean. Ia asmatuten ba dozue zenbat diran.

(bederati)

Kendu marrazki onek eta euren lekuan ipi-ñi eizuez zenbakiak.
Marrazki bardiñei zenbaki bardiñak.

EUSKERAZALEAK

Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



A

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begiketetasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardñiak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan dirauelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakñia.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak Itzultzeko.

Betidanik.



BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

150 PEZETA

Depósito Legal: BI-1452-85
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO